**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(18.04.10)**

INGURUMEN ZINEGOTZIA:
JOSÉ LUIS LANDA jn.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA
UNAI LERMA jn.
JOSE Mª GARCÍA BARCINA jn.

BERTARATUTAKOAK:

JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria)
CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan)
JONE RETOLAZA and. (Eskola Agenda 21 Larrañazubi Eskola)
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)
DIMAS RAMOS jn. (Kirol elkarteak)
NATIVIDAD MORALES and. (Gizatiarreko ordezkaria)
KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute: XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona), JOSEBA ARREGI jn. (Hirigintza zinegotzia), JOSU INTXAURRAGA jn. (Itxartu Taldea), TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleakeko ordezkaria), JAVIER GALÁN jn. (GetxoEnpresako presidentea), CARLOS ARANA jn. (Sarekideko ordezkaria) eta IBINKA GUTIÉRREZ and. (Eskola Agenda 21 Azkorri).

Getxon, 2018ko apirilaren 10an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**GAI ZERRENDA**

Bileraren hasieran, Eugenia Atin andreak arestian esandako Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela aipatu du eta gai zerrenda aurkeztu du.

Ingurumen Foroak eskatuta, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari gonbita egin zaio, Getxoko Udalak udalerriko saneamendu- eta banaketa-sarean egiten dituen mantenuko esku-hartzeen ondorioz sortutako zalantzak argitu ditzan.

**1.- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren gaitasunen eta ekintzen**

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(10.04.18)**

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSÉ LUIS LANDA

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA

CONSULTORA:
Dª EUGENIA ATIN

CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA
D. UNAI LERMA (Director Comercial)
D. JOSE Mª GARCÍA BARCINA (Responsable de Medio Ambiente)

ASISTENTES:

D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak)
Dª CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan),
Dª JONE RETOLAZA (Agenda Escolar 21 Larrañazubi),
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad),
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas)
Dª NATIVIDAD MORALES (Representante de Gizatiar)
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarias Vasca)

Excusan su no asistencia: D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente), D. JOSEBA ARREGI (Concejal de Urbanismo), D. JOSU INTXAURRAGA (Itxartu Taldea), Dª TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak), D. JAVIER GALÁN (Presidente de Getxo Enpresa), D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide) y Dª IBINKA GUTIÉRREZ (Agenda Escolar 21 Azkorri).

En Getxo, a 10 de abril de 2018 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, Dª Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados y presenta el orden del día.

A petición del Foro de Medio Ambiente se ha invitado al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia para que resuelvan las dudas suscitadas a raíz de las intervenciones de mantenimiento que realiza el Ayuntamiento de Getxo en las redes de saneamiento y distribución del municipio.

**deskribapena**

Unai Lerma eta Jose María García Barcina jaunek, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko merkataritza-zuzendariak eta Ingurumeneko arduradunak hurrenez hurren, dokumentazioa aurkeztu dute eta aurkezpen bat eman dute.

Ur Partzuergoa da uraren lehen mailako sarea kudeatzeko entitate arduraduna; Partzuergoko kide diren Bizkaiko 80 udalerrietako ur edangarriaren horniketaz eta hondakin-uren saneamenduaz arduratzen da.

Unai Lerma jaunak zehatz-mehatz azaldu ditu Ur Partzuergoaren uraren fakturaren atalak. Adierazi behar da fakturak bi zati dituela, ondo bereizitakoak: Ur Partzuergoaren berezko tasei dagokiena eta udal tasei dagokiena.

Partzuergoko tasen barruan, horniketaren eta saneamenduaren arteko ezberdintasuna nabarmentzen da. Ur Partzuergoak urtero argitaratzen ditu tasak eta bi tasak ia bat datoz.

Udal tasen atala ulertzeko zailagoa da. Getxoren kasuan, bi tasa ditu: zaborrena eta estolderiarena. Udal tasak dira Udalak Ur Partzuergoaren bitartez biltzen dituenak. Hau da, Partzuergoa merkataritza-kudeatzaile hutsa da, kobratzeko kudeaketa egiten duena. Udalak zaborren eta estolderiaren tasak onartzen ditu, eta Partzuergoari eskuordetzen dio hiruhileko likidazioa egitea.

Nahasgarria izan daiteke estolderia atal horretan egotea, baina Udalaren eskumena da, ez Ur Partzuergoarena. Ur zikinak biltzea Udalari dagokio.

Hiru hilean behin, zerbitzuaren balorazio-inkesta bat egiten zaio bezeroen lagin bati, baina Unai Lerma jaunak bertaratutakoei gonbita egin die faktura ulergarriagoa izateko ideiak proposatzeko.

Javier Loidi jaunak jakin nahi du zerk osatzen duen hornidura. Ura biltzea, urtegian metatzea, garraiatzea, tratatzea eta ur edangarria hornidura-sareko goiburuko andeletaraino bideratzea.

Koldo Nabaskues jauna harritu egin da jakin duenean Ur Partzuergoak Udalari tasekin bildutakoaren % 3 kobratzen diola merkaturatze-lanak egiteagatik. Partzuergoak kontagailuak irakurtzen ditu, herritarren kontsultei eta erreklamazioei erantzuten die eta abar.

Estolderiaren tasari dagokionez, hura Udalaren arabera aldatzen da; batzuk zuzenean lotuta daude kontsumitutako ur-bolumenarekin, baina normalean zati finko bat kobratzen da, eta beste zati aldakor bat ur-kontsumoak atalasea gainditzen badu. Euri-urak eta ur zikinak hodi biltzailean nahasten dira. Hor hasten da saneamendu-fasea. Getxoren kasuan, Galindoko Hondakin

**1.- Descripción de las competencias y actuaciones del Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia.**

Entrega de documentación y realización de una exposición a cargo de D. Unai Lerma y D. Jose María García Barcina, Director Comercial y Responsable de Medio Ambiente, respectivamente, del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia.

El Consorcio de Aguas es la entidad responsable de la gestión en red primaria de agua, tanto del abastecimiento de agua potable como del saneamiento de las aguas residuales de los 80 municipios consorciados de Bizkaia.

D. Unai Lerma explica con detalle los diferentes apartados de la factura de agua del Consorcio de Aguas. Cabe señalar que la factura se compone de dos partes bien diferenciadas, la correspondiente a las tasas propias del Consorcio de Aguas y la sección de las tasas municipales.

Dentro de las tasas del Consorcio se subraya la diferencia entre el abastecimiento y el saneamiento. Las tasas las publica anualmente el Consorcio de Aguas y prácticamente coinciden ambas tasas.

El apartado de las tasas municipales es más complejo de entender. En el caso de Getxo se compone de dos tasas, la de basuras y la del alcantarillado. Las tasas municipales son tasas que recauda el Ayuntamiento a través del Consorcio de Aguas. Es decir, el Consorcio es un mero gestor comercial que realiza la gestión del cobro. El Ayuntamiento aprueba las tasas de basuras y de alcantarillado y delega en el Consorcio que se encarga de la liquidación trimestral.

Puede dar lugar a confusión que el alcantarillado se encuentre en este apartado, pero no es competencia del Consorcio de Aguas sino del Ayuntamiento. La recogida de aguas fecales es responsabilidad del Ayuntamiento.

Trimestralmente se realiza una encuesta de valoración del servicio a una muestra de clientes pero D. Unai Lerma invita también a los asistentes a que se propongan ideas para hacer la factura más comprensible.

D. Javier Loidi se interesa por saber qué comprende el abastecimiento. Son las funciones de captación de agua, embalse, transporte, tratamiento y conducción del agua potable hasta los depósitos cabecera de la red de distribución.

D. Koldo Nabaskues se sorprende al conocer que el Consorcio de Aguas cobra al Ayuntamiento el 3% de lo recaudado en las tasas municipales por realizar la labor de comercializadora. El Consorcio se encarga de la lectura de contadores, de las consultas y reclamaciones de la ciudadanía, etc.

En relación a la tasa de alcantarillado, ésta varía según el Ayuntamiento, algunas están directamente relacionadas con el volumen de agua consumido pero típicamente se cobra un fijo y un variable si el consumo de agua excede del umbral. Las aguas pluviales y fecales se acaban mezclando en el colector. Aquí empieza la fase de saneamiento. En el caso de Getxo, se

Uren Araztegira bidaltzen da, eta, behin saneatu denean, Ballonti ibaian isurtzen da.

Getxoko Udalak edangarri bihurtutako ura erosten dio Ur Partzuergoari, eta, gero, Udalak du ardura ura udal andeletik kontsumitzaileengana iritsarazteko. 1.000 litroko 0,40 euro ordaintzen dio Udalak Partzuergoari. Partzuergoak merkataritza-kudeaketa eta fakturak egiten ditu, baina hor ez da aplikatzen % 3 hori. Ehuneko hori udal tasetarako da soilik.

Jose Luis Landa jaunak interesa du EBri politika hidriko europarra emango liokeen Europako Zuzentarauaren ondorioz tasak igotzeko arriskuaren inguruan. Hala da, tarifak goranzko joera hartu behar du. Arazteko kostuak geroz eta handiagoak dira, eta inbertsio-kostuak ere badaude; Galindon, adibidez, ekipamendua etengabe berritzen eta ordezten da.

Koldo Nabaskues jaunak jakin nahiko luke zenbat ari garen ordaintzen hornidura-tasen bitartez eta, batez ere, saneamendu-tasen bitartez. Kontuan hartuta Aldundiak ere dirua jartzen duela, zaila iruditzen zaio justifikatzea diru-bilketa guztia araztean gastatzen dela. Ez bagara azpiegitura-obrak ordaintzen ari, zer ari ara ordaintzen?

Jose Luis Landak hitza hartu du, ez dezagun ahaztu Ur Partzuergoa entitate publiko bat eta kudeaketa-eredu bat dela. Eusko Jaurlaritza (URAren bitartez) arduratzen da interes sozialeko azpiegitura-obrez.

Koldo Nabaskues jaunak uste du Partzuergoa gardenagoa izan beharko litzatekeela, eta garbi azaldu beharko lukeela ustiapenaren kontua. Batetik, sarearen garraioa, araztea, punpatzea eta energia dago; energia-kontsumo oso handia da. Jone Retolaza andreak aipatu du komun-zulotik behera botatako paper-zapi bustien arazoa; arazte-prozesua askoz garestiago bihurtzen baitute.

Uraren tasaren bidez finantzatzen dira edangarri bihurtzeko, urtegian biltzeko, udal andeletako, banaketa-hodiak ordezteko, amortizazio-analisi eta -azterketetako, azpiegiturak ordezteko eta abarretako kostuak. Horren bidez ez da estaltzen udalerri gehiago Partzuergoan sartzea, eta tarifan kalkulatzen dira kostu horiek guztiak estaltzeko.

Koldo Nabaskues jaunak ustiapen-kontua ikusi nahi du, kosta egiten baitzaio sinestea sistemak defizita duenik 1.000 litroko 0,573 euroko diru sarrera izanda konponketak eta ordezkapenak egiteko.

Javier Loidi jaunak azaldu du Euskal Herriko biltegiratze-gaitasuna oso murriztua dela. Sistema oso zentralizatua dugu, eta gure bailarak txikiak direnez, euri ugari egiten duen arren, ura itsasora doa. Ur gutxiago kontsumitzea bultzatu behar da. Javier Loidi jauna ados dago, gardenago izan behar da, baina kostuak errealitatearekin bat datoz. Alemanian edo Europako eta estatuko beste leku batzuetan metro kuboak balio duenarekin alderatuta, gure ura oso merkea da. Haren iritziz, tasak azaltzen dituzte amortizazio-kostuek eta azpiegiturak ordezteko kostuek.

transporta a la Estación Depuradora de Aguas Residuales de Galindo y una vez saneada se vierte al río Ballonti.

El Ayuntamiento de Getxo compra agua potabilizada al Consorcio de Aguas y posteriormente el Ayuntamiento es el responsable de hacerla llegar desde el depósito municipal a los consumidores. Cada 1000 litros, el Ayuntamiento paga al Consorcio 0,40 euros. El Consorcio hace la gestión comercial y las facturas pero aquí no se aplica el 3%, este porcentaje es exclusivamente para las tasas municipales.

D. Jose Luis Landa se interesa por la amenaza de subir las tasas a raíz de la directiva europea que dotaría a la UE de una política europea hídrica. Efectivamente la tarifa tiene que tender a subir. Los costes de depuración son cada vez más altos, también hay costes de inversión; en Galindo, por ejemplo, se está permanentemente remodelando y sustituyendo equipamiento.

A D. Koldo Nabaskues le gustaría saber qué estamos pagando a través de las tasas de abastecimiento y sobre todo de saneamiento. Teniendo en cuenta que la Diputación también pone dinero, le parece difícil de justificar que toda la recaudación se vaya en la depuración. Si no estamos pagando las obras de infraestructura, ¿qué pagamos?

D. Jose Luis Landa interviene para que no olvidemos que el Consorcio de Aguas es una entidad pública y que es un modelo de gestión. El Gobierno Vasco (a través de URA) es el que se hace cargo de las obras de infraestructura de interés social.

D. Koldo Nabaskues opina que el Consorcio debería ser más transparente y explicar de manera clara la cuenta de explotación. Por un lado está el transporte de la red, la depuración, el bombeo y también la energía, se trata de un consumo energético elevadísimo. Dña Jone Retolaza menciona también el problema de las toallitas que se echan por el WC y que encarecen muchísimo el proceso de depuración.

La tasa de agua financia los costes de potabilizar, embalsar, funcionamiento de potabilizadoras, depósitos municipales, sustitución de tuberías de distribución, análisis y estudios de amortización, costes de sustitución de infraestructuras... No se cubre la incorporación de nuevos municipios al Consorcio y se calculan las tarifas para recuperar el dinero para cubrir todos estos costes.

D. Koldo Nabaskues quiere ver la cuenta de explotación porque a 0,537 euros/ 1000 litros, para acometer reparaciones y sustituciones, le cuesta creer que el sistema sea deficitario.

D. Javier Loidi explica que la capacidad de almacenamiento en el País Vasco es muy limitada. Tenemos un sistema muy centralizado y como nuestros valles son pequeños, aunque llueve mucho, el agua se va al mar, lo que hay que hacer es desincentivar el consumo de agua. D. Javier Loidi comparte que hay que ser transparentes pero cree que los costes están ajustados a la realidad. Comparativamente con lo que cuesta el m3 en Alemania o en otras zonas de Europa e incluso el Estado, nuestra agua es muy barata. En su opinión las tasas se explican por el hecho de trasladar los costes de amortización y los costes de sustitución de infraestructuras.

Josu Ateka jaunak aipatu du tasa handiagotu litekeela ingurumenaren irizpideari jarraikiz. Murtzian hala egin da, kontsumoa murrizteko.

D. Josu Ateka comenta que el aumento de la tasa podría realizarse con un criterio ambiental. En Murcia se ha hecho para reducir el consumo.

Koldo Nabaskues jaunak proposatu du saneamenduaren prezioa finkatzea herritarrak ordaindu dezakeen tasa batean. Gaur egun, tasa horniduraren tasa bezalakoa da, mailakakoa: zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta garestiagoa. Horren arrazoia da iturritik irteten dena sistemara itzultzen dela eta saneatu egin beharra dagoela.

D. Koldo Nabaskues propone fijar el precio de saneamiento a una tasa asumible por el ciudadano. En la actualidad la tasa es como la tasa de abastecimiento, son progresivas, cuanto más consumes, más cara es. Esto se justifica porque lo que sale del grifo acaba volviendo al sistema y se tiene que sanear.

Natividad Morales andreak interesa du uraren kalitatean eta agertzen ari diren kutsatzaileen inguruan. José María García Barcina jaunak azaldu du legedi eta araudi teknikoa eta sanitarioa geroz eta zorrotzagoak direla, eta gure urak oso kalitate ona duela. Batetik, hornidurari dagokionez, ur gordinean kutsatzaileak detektatzen dira, eta gero deuseztatu egiten dira. Behin edangarria denean, urak ez du kutsatzailerik. Etxebarrin planta pilotu bat dago, Nerbioi edangarri bihurtzeko asmoa duena. Laborategi bat da, eta bertatik teknikariek definitzen dute zein tratamendu eman behar zaien ibilgutik erauzitako urei eta zein prozedura egin behar den ura gizakiek arriskurik gabe kontsumitu ahal izateko.

Dña Natividad Morales se interesa por la calidad del agua y los contaminantes emergentes. D. Jose María García Barcina explica que la legislación y la normativa técnico sanitaria son cada vez más exigentes y que nuestra agua es de muy buena calidad. Por un lado, en cuanto al abastecimiento, en el agua bruta se detectan contaminantes que son eliminados, una vez potabilizada, el agua no tiene contaminantes. En Etxebarri, una planta piloto busca potabilizar el Nervión. Se trata de un laboratorio donde los técnicos definen el tratamiento que se tiene que dar a las aguas que se extraigan del cauce y qué procedimientos hay que llevar a cabo para que el agua sea apta para el consumo humano sin riesgo.

Bestetik, hondakin-uren tratamenduan kutsatzaile ugari hautematen dira, gehien-gehienak konposatuak: drogak, pestizidak, medikamentuak eta abar. Kutsatzaile horiek kendu egin behar dira urak ibilguetara itzuli aurretik.

Por otro lado, en el tratamiento de las aguas residuales se detectan muchos contaminantes, la inmensa mayoría compuestos: drogas, pesticidas, medicamentos… Estos contaminantes deben ser eliminados antes de verter el agua a los cauces.

Natividad Morales andreak jakin nahi du nork hartzen duen ura fluoratzeko erabakia. Zenbait txostenek ohartarazten dute fluorrak eragina duela neuronetan, eta herritarrek ez dute nahikoa informazio. Osasun Sailak ezartzen du, osasun-politikaren esparruan, kontsumo publikoko urak fluoratzeko nahitaezkotasuna. Ur Partzuergoak araudia betetzen du, besterik ez. Erabiltzen den konposatua azido hexafluorosilizikoa da, eta konposatuaren erosketa lizitazio baten bidez egiten da.

Dña Natividad Morales quiere saber quién decide sobre la fluoración de las aguas. Existen informes que advierten sobre las afectaciones neuronales del flúor y la ciudadanía no está suficientemente informada. El Departamento de Sanidad y Consumo es quién en el marco de la política sanitaria establece la obligatoriedad de la flouración de las aguas potables de consumo público. El Consorcio de Aguas solamente cumple la normativa. El compuesto que se usa es ácido hexafluorosilícico, y la compra del compuesto sale a licitación.

Hodiei dagokienez, José Luis Landa jaunak jakin nahi du zein material erabiltzen diren. Diametro handiko hodietan, normalean, burdinurtua erabiltzen da, presio handia dagoelako. Punpatzeko eta diametro txikiagoko beste erabileretarako HDPE erabiltzen da (dentsitate altuko polietilenoa), eta, saneamenduan ere bai (PVC eta hormigoia).

En cuanto a las tuberías, D. Jose Luis Landa se interesa por saber qué tipo de materiales se utilizan. En las tuberías de diámetro grande se usa normalmente fundición puesto que hay mucha presión. Para bombeos y otros usos de menor diámetro se usa comúnmente PEAD (polietileno de alta densidad), y también en saneamiento (PVC y hormigón).

Uraren fakturaren kontura itzulita, Josu Ateka jaunak galdetu du zein diren kontsumo-mailak eta tarifikazio ezberdina. Paperean aurkeztutako ordenantza fiskala webgunetik ere deskargatu daiteke, eta bertan agintzen eta arautzen dira uraren horniduraren eta saneamendu-zerbitzuaren tasak. Etxeko erabiltzaileentzat 3 bloke daude: 25 metro kuborainokoa, 25 eta 75 metro kubo artekoa eta 75 metro kubo baino gehiagoko kontsumoetakoa.

Retomando el tema de la factura del agua, D. Josu Ateka pregunta por los escalones de consumo y la diferente tarificación. En la Ordenanza Fiscal que nos han entregado en papel y que puede ser descargada también de la página web, se ordenan y regulan las tasas del abastecimiento de agua y del servicio de saneamiento. Para usuarios domésticos hay 3 bloques: para consumos hasta 25 m3, consumos entre 25 y 75 m3 y consumos superiores a 75 m3.

Koldo Nabaskues jaunak proposatu du kontsumitzailearen ordezkari bat egotea Ur Partzuergoaren gobernu-organoan. Kontsumitzaileen elkartetik eskatu izan ohi da mahaian egotea,

D. Koldo Nabaskues propone que haya un representante del consumidor en el órgano de gobierno del Consorcio de Aguas. Desde la Asociación de Consumidores históricamente se ha solicitado estar en esta mesa pero nunca se ha aceptado dicha

baina inoiz ez da eskaera hori onartu. Batzar Nagusian Partzuergoa osatzen duten udalerri guztien udaletako ordezkariak daude (udalerri bakoitzaren biztanleen proportzioko ordezkaritza), Bizkaiko Foru Aldundikoez eta Eusko Jaurlaritzakoez gain. Koldo Nabaskues jaunaren iritziz, sistema demokratizatu beharko litzateke, eta herritarrak barruan sartu beharko lirateke. Javier Loidi jaunaren ustez, nahikoa da herritarrek udaletako zinegotzien bitarteko ordezkaritza izatearekin. Unai Lerma jaunak adierazi du kideen artean ere bilakaera bat izan dela; aurreko estatutuan udal ordezkaritzak ez ziren biztanleen araberakoak. Koldo Nabaskues jaunak errepikatu egin du Batzar Nagusian kontsumitzaileek ordezkaritza izateko eskaera, eta gardentasuna aipatu du, Partzuergoaren webgunearen arabera lehentasuna baita.

Koldo Nabaskues jaunak galdetu du gertatu daitekeen bezero batzuk soilik saneamendukoak izatea. Erantzun zaio hala dela, industria batzuk urez beren kabuz hornitzen direla, eta saneamendu zerbitzua behar dutela soilik. Horrenbestez, metro kuboak neurtu behar dira, eta, industria guztietan bezala, isurketak aztertu behar dira, kutsatzaileak badaude ere.

Koldo Nabaskues jaunak uste du gehiegi gastatzen dela ura arazten, eta proposatu du industriak behartzea aurretratamendu bat egitera edo urak aurrez araztera, kutsatzaileak araztegira iritsi ez daitezen.

Horrez gain, Koldo Nabaskues jaunak teleirakurketaren inguruan galdetu du, eta jakin nahiko luke Ur Partzuergoa nola ari den aurrera egiten teknologia horri dagokionez. Gaur egun biztanleria-dentsitate txikiena duten guneetan jardun da: Durangaldea, Lea Artibai, Mungialdea eta abar. 100.000 erabiltzaile inguruk du irrati-modulua duen kontagailu bat, 10 segundoan behin seinale bat bidaltzen duena. Bi langilerekin 100.000 kontagailu horiek irakurtzen dira automatikoki. Pertsona batek autoa gidatzen du, eta besteak seinale horiek (irakurketak) ordenagailu eramangarri batekin jasotzen ditu. Kudeaketa-zailtasunak daude, baina abantailak garbiak dira. Ur-kontagailuen % 60 etxebizitzen barruan daude, horrek erabiltzaileari eta Partzuergoari irakurketa egitean dakarkion ezerosotasunarekin. Getxon, kontagailua aldatzean, irratidun bat jartzen da. Ez dago teknologia bakarra, baina komenigarria da etxebizitzetako eragiketak baliatzea. Langile-kopuruari dagokionez, lehen 27 irakurle eta 6 ikuskatzaile zeuden, eta orain 23 irakurle eta 8 ikuskatzaile daude.

Azkenik, Koldo Nabaskues jaunak proposatu du gehiago dibulgatu daitezen dauden hobari fiskalak. Informazio-gutun bat bidali liteke uraren fakturarekin batera, mekanismoak baitaude, DSBE jasotzen dutenentzako hobariak, esaterako, agian ezagutzen ez dituztenak, nahiz eta Getxoko Gizarte Zerbitzuak jakinaren gainean dauden.

**2.-Ingurumeneko Tokiko Foroak 2018ko otsailaren 20an egindako bilerako akta onartzea.**

petición. En la Asamblea General están representados todos los Ayuntamientos de los municipios que integran el Consorcio (representación proporcional al número de habitantes de cada municipio), además de la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco. En opinión de D. Koldo Nabuskues se debería democratizar el sistema e incluir a la ciudadanía. Para D. Javier Loidi es suficiente con que la ciudadanía se represente a través de los concejales de los ayuntamientos. D. Unai Lerma indica que también ha habido una evolución en los miembros, en el estatuto anterior la representación municipal no era proporcional al número de habitantes. D. Koldo Nabaskues reitera su petición de representación del consumidor en la Asamblea General y apela a la transparencia que según indica la página web del Consorcio, es una prioridad.

D. Koldo Nabaskues pregunta a ver si se podría dar el caso de tener clientes exclusivamente de saneamiento. Se indica que efectivamente, hay industrias que se autoabastecen de agua y que solo requieren el servicio de saneamiento. Hay que medir por lo tanto los m3 y como en todas las industrias analizar los vertidos por si pudiera haber contaminantes.

D. Koldo Nabaskues opina que se está gastando demasiado en depurar el agua y propone obligar a las industrias a realizar un pretratamiento o depuración previa que evite que los contaminantes lleguen a la depuración.

Por otro lado, D. Koldo Nabaskues pregunta por la telelectura, le gustaría saber cómo de avanzado está el Consorcio de Aguas en esta tecnología. En la actualidad se ha actuado sobre las áreas menos densamente pobladas: Durangaldea, Lea Artibai, Mungialdea… Unos 100 mil usuarios tienen contador con módulo de radio que cada 10 segundos transmite una señal. Con dos trabajadores se leen estos 100 mil contadores de manera automática, una persona conduce el coche y la otra va recogiendo las señales (lecturas) desde un ordenador portátil. Hay complicaciones de gestión pero las ventajas son claras. El 60% de los contadores de agua están dentro de los domicilios, con la consiguiente incomodidad para el usuario y para el Consorcio a la hora de hacer la lectura. En Getxo, cuando se cambia el contador, se pone uno con radio. No existe una única tecnología pero conviene aprovechar las operaciones en los domicilios. En cuanto al número de trabajadores, antes había 27 lectores y 6 inspectores y ahora hay 23 lectores y 8 inspectores.

Por último, D. Koldo Nabaskues propone que se haga una mayor divulgación de las bonificaciones fiscales existentes. Se podría incluir una carta informativa con la factura de agua puesto que existen mecanismos como las bonificaciones para las personas perceptoras de RGI que quizás no se conozcan a pesar de que Servicios Sociales de Getxo esté al corriente.

**2.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 20 de febrero de 2018**.

Se aprueba el acta por unanimidad.

En Getxo, a las 21:00 horas se da por finalizada la reunión.

Aho batez onartu da.

Getxon, 21:00ak izanik, bilkura amaitutzat jo da.